

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5599

1775/2022 EBAZPENA, azaroaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen diren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez onartu dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko deitutako hautaketa-prozesu hauetako oinarri orokorrak: 2020ko, 2021eko eta 2022ko urteetakoak eta egonkortzeko prozesukoak.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da kategoría bakoitzeko destinoen deialdia arautuko duten oinarri espezifikoak argitaratzea.

Horregatik, kontuan izanda Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuaren abenduaren 16ko 55/2003 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarriak,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Oinarri hauen xede diren hautaketa-prozesuetarako deia egitea.

Bigarrena.– Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak (lehiaketa-oposizioko blokea eta lehiaketako blokea) arautuko dituzten oinarri espezifikoak onartzea, I. eranskinean jasotakoak, Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Lehen Mailako Arretako Pediatria Unitateetako destinoetan.

Hirugarrena.– Ebazpen honen II. eranskinaren bidez onartzea bloke bakoitzean (lehiaketa-oposizioko blokea eta lehiaketako blokea) eskainitako destinoen zerrenda.

Laugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinean agertzen den merezimenduen baremoa onartzea (baremo bera da oposizio-lehiaketaren blokerako eta lehiaketaren blokerako).

Bosgarrena.– Lehiaketa-oposizioko blokeko gai-zerrenda onartzea, Ebazpen honen IV. eranskinean jasotakoa.

Seigarrena.– Deialdi honetan parte hartzeko eskaera aurkezteko epea 2023ko otsailaren 21etik 2023ko martxoaren 20ko 14:00ak artekoa izango da, hala ezarri baita oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 9.3 oinarrian.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetzaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

I. ERANSKINA

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAN ESTATUTUPEKO LOTURA
FINKOA LORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI
ESPEZIFIKOAK, FAKULTATIBO MEDIKOAK ETA TEKNIKOAK LANBIDE-TALDEKO
MEDIKUA KATEGORIARAKO (PEDIATRIAKO FEM - LMAT LANPOSTU FUNTZIONALA),
OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOETAKO
ERAKUNDEETAKO DESTINOETARAKO

1.– Deialdiaren xede diren destinoak.

1.1.– Deialdi honen xede izango dira Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategoriako (Pediatriako FEM - LMAT lanpostu funtzionala) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoak; II. eranskinean jasota daudenak, alegia.

1.2.– Deialdian sartutako destinoen % 7 desgaitasunen bat duten langileek betetzeko gordeko dira, II. eranskinean jasotako oinarri orokorretako 1.3 oinarrian ezarritako banaketaren arabera.

2.– Izangaiek bete beharreko eskakizunak.

Honen bidez araututako prozesuan parte hartzeko, izangaiek, oinarri orokorretan ezarritako salbuespenak kenduta, aurkezteko epearen azken egunean bete beharreko eskakizunez gain, oinarri orokorretan jasota daudenak ere bete beharko dituzte, eta horiek kasuan kasu esleitzen den destinoa jabetzan hartu arte bete beharko dira:

a) Oinarri orokorretako 6.2.c) apartatuan xedatutakoarekin bat, Medikuntzako eta Kirurgiako Lizentzia edo titulu baliokidea izatea eta Pediatria espezialitateko titulua izatea, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emana, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

b) Edonola ere, lortu nahi den lanpostuaren baldintzak betetzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak xedatutakoaren arabera, bai eta indarrean dagoen araudiak eskatzen duen beste edozein eskakizun betetzea ere.

c) Eskabideak aurkezteko epearen barruan, izena emateko eskubideengatik dagokion tasa ordaindu izana, eskainitako destinoen lanbide-taldearen arabera:

A1 taldea (A talde zaharra): 25 euro.

3.– Prozesua nola garatuko den:

3.1.– Lehiaketa-oposizioko blokearen eta lehiaketako blokearen lehiaketa-fase bateratua:

3.1.1.– Eskakizunen eta merezimenduen egiaztapena. Dokumentazioa aurkeztea.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendan onartuta dauden izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute –onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita– deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzen eta merezimenduen alegazioa egiteko, bai eta horien inguruko egiaztagiria aurkezteko ere, 12.1 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Egiaztatutako merezimenduak III. eranskineko merezimenduen baremoaren arabera baloratu dira, oinarri orokorretan ezarritako irizpideen arabera (12.2 oinarria).

3.1.2.– Oinarri orokorretako 14.1.1 apartatua (lehiaketa-oposizioko blokea) eta 14.2.1 apartatua (lehiaketako blokea) zehaztutako puntuazio-hurrenkeraren arabera izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren, I. eranskinean agertzen diren proposatutako izangaiak honako dokumentu hauen fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute, 14.1.2 oinarrian (lehiaketa-oposizioko blokea) eta 14.2.2 oinarrian (lehiaketako blokea) zerrendatzen den dokumentazioaz gain:

– Medikuntzako eta Kirurgiako Lizentzia edo titulu baliokidea izatea eta Pediatria espezialitateko titulua izatea, beharrezkoa baita lanpostu funtzionalean aritzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

Izangai bat aldi berean lehiaketa-oposizioko blokeko I. eranskinean eta lehiaketako blokeko I. eranskinean sartuta badago, dokumentazioa behin bakarrik aurkeztu beharko du, oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera (14.1.2 oinarria).

3.2.– Lehiaketa-oposizioko blokeari dagokion oposizio-fasea:

Epaimahai kalifikatzaileari dagokio proben edukia eta kalifikazioa zehaztea, eta, horretarako, hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu eta prozesuaren gardentasuna eta objektibotasuna bermatuko du.

Epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari eskatu ahal izango dio aholkulariek parte har dezatela hautaketa-prozesuaren fase guztietan, bai proba prestatzeari dagokionez, bai lehiaketa-fasean. Aholkulariek epaimahaikideei eskatzen zaien titulu-eskakizun bera izango dute.

Epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari kanpoko erakunde aholkularietara jotzea ere eskatu ahal izango dio, probak prestatzeko eta oposizio-fasean probekin zerikusia duten gai guztietarako.

Probari idatziz erantzun beharko zaio, ematen den gehieneko denboraren barruan, eta galderak IV. eranskinean jasotako gaiei buruzkoak izango dira:

1.– Gai-zerrenda komunari buruzko galderak Osakidetzaren webgunean argitaratutako galdera-sortatik aterako dira.

2.– Gai-zerrenda komunari buruzko galdera horiek prestatzeko bibliografia ere eranskin berean emango da.

Epaimahai kalifikatzaileari dagokio gai-zerrenda komuneko galderak hautatzea eta gai-zerrenda orokorreko galderak hautatzeari buruzko erabakiak hartzea. Epaimahaiak galdera horiekin guztiekin osatuko du, hain zuzen ere, ariketa teorikoa.

3.3.– Lanpostuez jabetzea.

Oinarri orokorretako 17. oinarrian aipatutako dokumentazioaz gain, deialdi honetako destinoren bat jabetzan hartzen dutenek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte lanpostuaz jabetzeko ekitaldian:

– Elkargokide-ziurtagiria.

II. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA KATEGORIA HONETAN: MEDIKUA, LANPOSTU
FUNTZIONALA: FAK. ESP. PEDIATRIAKO MEDIKUA LMT

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1736/2022 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian xedatutakoaren arabera, destino hauek betetzeko deialdia egiten da:

1.– Lehiaketa-oposizio blokea:

a) Txanda askeko deialdia: 44 destino.

Sarbide orokorra: 41.

Erreserba-kupoa desgaitasunen bat duten pertsonentzat: 3.

– Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa: 0.

– Bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa: 3.

2.– Lehiaketako blokea:

Sarbide orokorra: 3 destino.

Adimen-desgaitasuna duten langileentzako destinoak (adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa) ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzten duen izangai nahikorik, destino horiek desgaitasunen bat duten langileentzako erreserba-kupoan gehituko dira (bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa).

Desgaitasunen bat duten langileentzako destinoak ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzten duen izangai nahikorik, destino horiek dagokion txandako sarbide orokorreko lanpostuetan gehituko dira; hots, barne-sustapenean edo txanda irekian.

Oinarri orokorretako 2. oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdi honen xede diren zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoak, lehiaketa-oposizioko blokekoak zein lehiaketako blokekoak, zehaztuko dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko uneko zikloko destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena argitaratu ondoren, deialdiaren xede diren kategoriak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2018-2019ko EPEko behin betiko esleipenaren ebazpena argitaratu ondoren. Bi horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez argitaratuko dira, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko dira.

III. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA FAKULTATIBO MEDIKOAK ETA TEKNIKOAK LANBIDE-TALDEKO MEDIKUA KATEGORIAN (PEDIATRIAKO FEM-LMAT LANPOSTU FUNTZIONALA), OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOETAKO ERAKUNDEETAKO DESTINOETARAKO

1) Lan-esperientzia (gehienez, 60 puntu).

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunaren aurreko 20 urteetan izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Dagokion espezialitateko etengabeko arretako behin-behineko izendapen batean egindako zerbitzuen puntuazioari zerbitzu horiengatik normalean ematen den puntuazioaren % 50 aplikatuko zaio.

Zenbaketa osoa lan egindako egun naturaletan oinarrituko da, eta baztertu egingo dira hilabete-tik beherako soberakinak. Horretarako, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Zerga, administrazio eta gizarte neurriei eta ordena sozialari buruzko abenduaren 23ko 62/2003 Legean xedatutakoaren arabera eta deialdiak ezarri bezala, titulua irailaren 24ko 1497/1999 Errege Dekretuaren babesean eskuratu dutenen espezialista gisako antzintasuna baloratzeko, aintzat hartuko da interesdunak espezialitatearen berezko eta berariazko eremuan egindako lan profesional eraginkor osoa. Nolanahi ere, jardute horretatik –eta hasierako alditik– kendu egingo da Espainian espezialitate horretarako ezarritako prestakuntza-aldiaren % 170. Kenketa hori ez zaie aplikatuko espezialista-titulua 1497/1999 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera lortu dutenei.

1.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan Lehen Mailako Arretako pediatria gisa edo arlo medikoko kudeaketako lanpostuetan emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,30 puntu.

2.– Gizarte Segurantzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan Lehen Mailako Arretako pediatria gisa edo arlo medikoko kudeaketa-lanpostuetan emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,075 puntu.

3.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko ospitaleetan, autonomia erkidegoetako osasun zerbitzuetan edo osasun sistema nazionalari atxikitako ikerketa zentro ofizialetan edo erakundeetan pediatria gisa edo pediatriaren arloan ikertzaile gisa lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,21 puntu.

4.– Aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetako ospitaleetan edota Europar Batasuneko kide diren gainerako estatu etako sare publikoko zerbitzu sanitarioetan pediatria gisa edo pediatriaren arloan ikertzaile gisa emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,0525 puntu.

5.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan eta autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan kudeaketa-arloan eta zerbitzu orokorren arloan goi-mailako kudeaketa lanpostuetan egindako hilabete bakoitzeko: 0,07 puntu.

Barne-sustapeneko txandaren bidez sartzten diren langileei ondoren zehazten den moduan zenbatuko zaizkie alde aurreko zerbitzuak:

- a) E taldean eskainitako zerbitzuak: 0,03 puntu hilabete bakoitzeko.
- b) D taldean eskainitako zerbitzuak: 0,045 puntu hilabete bakoitzeko.
- c) C taldean eskainitako zerbitzuak: 0,06 puntu hilabete bakoitzeko.

d) B taldean eskainitako zerbitzuak: 0,075 puntu hilabete bakoitzeko.

e) A taldean eskainitako zerbitzuak: 0,15 puntu hilabete bakoitzeko.

f) Lortu nahi den lanpostu berean emandako zerbitzuak:

f.1) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan: 0,30 puntu hilabete bakoitzeko.

f.2) Gizarte Segurantzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publiko zerbitzu sanitarioetan: 0,15 puntu hilabete bakoitzeko.

Zerbitzu-eginkizunetan edo goragoko kategoriako eginkizunetan emandako zerbitzuak benetan betetako lanpostuan zenbatuko dira.

Halaber, jatorrizko lanpostuan zenbatuko dira zerbitzu berezietan emandako zerbitzuak.

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa (gehienez, 20 puntu).

A) Apartatu honetan, honako hauen arabera egiaztatzen den prestakuntza baloratuko da:

a) Graduurreko prestakuntza:

Espediente akademikoaren balorazioa honela egingo da:

$$\frac{(\text{Bikain kopurua} \times 6) + (\text{Ohorezko matrikulen kopurua} \times 9)}{\text{Ikasgaiak, guztira}}$$

Ez dira ebaluatuko, eta, horregatik, ez dira zatitzailean sartuko, ez ofizialki baliozkotu diren ikasgaiak, ez erlijioak, prestakuntza politikoko, gorputz-hezkuntzako eta hizkuntzetako ikasgaien kalifikazioak, ez Medikuntzako Lizentziako ikasketen edo baliokideren berezko edukiarekin funtsezko loturarik ez duten beste ikasgai batzuen kalifikazioak.

b) Graduondoko prestakuntza:

– Cum laude doktore-titulua: 10 puntu.

– Doktore-titulua: 9 puntu.

– Graduondoko masterra: 6 puntu.

– Unibertsitateko Aritu edo Espezialista titulua: 5 puntu.

– Ikertzeko nahikotasuna edo Diploma ikasketa aurreratuetan: 4 puntu.

– Lizentzia-gradua (bikain edo ohorezko matrikula): 3 puntu.

– Doktoretza-ikastaroa, ikastaro bakoitzeko (gehienez, 10 ikastaro): 0,25 puntu.

– Lotutako bestelako unibertsitate-tituluak: 2,5 puntu.

Cum laude doktore gisa puntuazioa emanez gero, ez da punturik emango doktore gisa. Cum laude doktorea edo Ikertzeko nahikotasuna edo Ikasketa aurreratuen diploma lortzeko balio izan duten programetako doktoretza-ikastaroek ez dute punturik emango.

Prestakuntza espezializatua:

1.– Kategorian sartzeko eskatutakoak ez diren legez aitortutako espezialitate bateko edo batzue-tako tituluak dituzten izangaiak, betiere titulu horiek ofizialki onartutako fakultatiboen prestakuntza espezializatuko programa egoiliar gisa bete ondoren lortu badituzte: 2 puntu.

2.– Kategorian sartzeko eskatutakoa ez den espezialista-tituluak dituzten izangaiak (BAME bidezkoak ez direnak): 1 puntu.

d) Hizkuntzak (gehienez, 3 puntu):

– Ingelesa: gehienez, 1,5 puntu.

– Frantsesa: gehienez, 1,5 puntu.

– Alemana: gehienez, 1,5 puntu.

e) Informatikako ezagutzak (gehienez, 2 puntu).

B) Apartatu honetan, eskaerak aurkezteko azken egunaren aurreko 10 urteetan amaitu den prestakuntza baloratuko da, eta honela egiaztatuko da:

a) Etengabeko prestakuntza:

Eskatutako destinoaren kategoriarekin zerikusia duten ikastaroetara joateagatik:

– 9 ordura arte: 0,25 puntu.

– 10 eta 19 ordu bitartean: 0,75 puntu.

– 20 eta 29 ordu bitartean: 1,25 puntu.

– 30 eta 49 ordu bitartean: 2 puntu.

– 50 eta 99 ordu bitartean: 3 puntu.

– 100 eta 249 ordu bitartean: 4 puntu.

– 250 eta 599 ordu bitartean: 5 puntu.

– 600 ordu edo gehiago: 6 puntu.

Ikastaroen egiaztagirian kreditu kopurua bakarrik jasota dagoenean, puntuazioa emateko balio-kidetasun hau egingo da:

– Kredituen Europako Sistemaren (ECTS) 1 kreditu: 25 ordu.

– Etengabeko Prestakuntza Batzordeko 1 kreditu: 10 ordu.

Ikastaroaren ordu kopurua eta kreditu kopurua adierazten ez duten egiaztagirien kasuan, edo kredituak izan bai, baina horiek aurreko paragrafoan zehaztutakoak ez direnean edo kredituen beste ordu-baliokidetasun bat ezartzen denean, epaimahaiak, aurkeztutako egiaztagiria eta ikas-taroaren edukia ikusita, dagokion puntuazioa emango du, eta kasu horretan ez du inolaz ere 0,25 puntu baino gutxiago emango.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek eta, hala badagokio, elkargo profesio-nalek eta elkarte zientifikoek egiaztatutako/akreditatutako ikastaroak baloratuko dira, baita edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera egiaztatutako/

akreditatutako ikastaroak ere, betiere titulu ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

b) Irakaskuntza-jarduerak:

– Fakultateko/Unibertsitate Eskolako katedraduna (urteko): 1 puntu.

– Unibertsitateko fakultateko/eskolako irakasle titularra edo elkartua (urteko): 0,50 puntu.

– Egoiliarren irakaskuntzarako tutore akreditatua, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,750 puntu.

– Irakaskuntza, etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan (orduko): 0,050 puntu.

c) Jarduera zientifikoa eta ezagutzaren hedapena:

Eskatutako destinoko lanpostu funtzionalarekin zerikusia duten lan zientifikoak argitaratzearen, txostenak aurkeztearen, komunikazioak aurkeztearen, hitzaldiak ematearen edo mahai-inguruetan parte hartzearen:

– Eskualdeko txosten bakoitzeko: 0,50 puntu.

– Estatuko txosten bakoitzeko: 2 puntu.

– Nazioarteko txosten bakoitzeko: 3 puntu.

– Eskualdeko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,30 puntu.

– Estatuko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1,20 puntu.

– Nazioarteko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 2 puntu.

– Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,40 puntu.

– Estatuko mahai-inguru bakoitzeko: 1,50 puntu.

– Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 2,50 puntu.

– Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.

– Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.

– Liburu bakoitzeko (lehenengo egilea): 4 puntu.

– Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): 2 puntu.

– Kapitulu bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.

– Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.

– Tesina bakoitzeko: 3 puntu.

Ez da baloratuko atal honetan zehaztu ez den merezimendurik.

3) Euskara:

– 2. HE: 18 puntu.

– 1. HE: 9 puntu.

IV. ERANSKINA

PEDIATRIAKO FEM-LMAT

I.– GAI-ZERRENDA OROKORRA

A) Oinarrizko gaitasunak.

1.– Osasunaren Lehen Mailako Arretaren kudeaketa eta antolakuntza. Lehen Mailako Arretako Taldeen funtzionamendua.

2.– Osasunaren ekonomia. Oinarrizko kontzeptuak: efikazia, efizientzia, eraginkortasuna eta ekitatea.

3.– Lehen Mailako Arretaren ikerkuntzaren oinarrizko estatistika eta metodologia.

4.– Prebentzioa eta osasuna sustatzea. Prebentzioko jarduera-programa.

5.– Oinarrizko epidemiologia. Maiztasuneko neurriak. Arriskua eta asoziazio kausala. Proba diagnostikoen eta screening proben baliozkotasuna. Zaintza epidemiologikoa.

6.– Historia klinikoa eta informazio-sistemak Lehen Mailako Arretan. Kodifikazio diagnostikoko sistemak lehen mailako arretan.

7.– Kalitatearen ebaluazioa eta hobekuntza. Prozesuen araberako kudeaketa.

8.– Ebidentzian oinarritutako medikuntza (EOM). Praktika klinikoko gidak.

9.– Bioetika: pazienteen eta profesional sanitarioen eskubideak eta betebeharrak (informazioa, konfidentzialtasuna, baimen informatua). Arazo etiko legal ohikoenak LMAko pediatrian.

10.– Pazientearen segurtasuna.

B) Haurren arretarekin lotutako gaitasunak.

1.– Osasuna sustatzea eta gaixotasunak prebenitzea. Haurren Osasunerako Programa.

1.1.– Amagandiko edoskitzea sustatzea.

1.2.– Elikadura gainbegiratzea eta nutrizio-aholkua.

1.3.– Aho-hortzen osasuna sustatzea. Haurren hortzak zaintzeko programa (PADI) Euskal Autonomia Erkidegoan.

1.4.– Tratu ona sustatzea eta tratu txarra prebenitzea.

1.5.– Fotobabesari buruzko aholkua.

1.6.– Jarduera fisikoari eta kirolari buruzko aholkua.

1.7.– Loaren gaineko aholku prebentiboak.

1.8.– Bularreko haurraren bat-bateko heriotzaren sindromea prebenitzea.

1.9.– Istripuak prebenitzea.

1.10.– Tabako-kontsumoa (pasiboa eta aktiboa), alkohol- eta bestelako droga-kontsumoa prebenitu eta detektatzea.

1.11.– Iodo-defizita prebenitzea, eta D bitaminarekin osatzeko indikazioak.

1.12.– Sexu-heziketa, eta nahigabeko haurdunaldia eta sexu-transmisiozko infekzioak prebenitzea nerabezaroan.

2.– Immunizazioak.

2.1.– EAEko txertaketa-egutegi ofiziala eta bertan sartzen diren txertoen ezaugarri orokorrak: txerto mota, jartzeko modua, txertaketa-bitarteak, kontraindikazioak eta albo-ondorioak.

2.2.– Txertaketa ez-sistematikoak edo egoera berezietan agintzen direnak.

3.– Arazoak goiz detektatzea haurtzaroan.

3.1.– Hazkunde fisikoa eta pubertaroko garapena.

3.2.– Garapen psikomotorra eta afektiboa.

a) Garapen psikomotorra eta afektiboa arlo guztietan (motor lodia eta fina, hizkuntza, soziabilitatea) eta alarma-seinaleak ezagutzea.

b) Espekto autistaren nahasmenduen baheketa.

3.3.– Patologiaren baheketa.

a) Jaioberrien endokrinopatiaren, sortzetiko metabolopatiaren, fibrosi kistikoen eta hemoglobinopatiaren baheketa.

b) Hipoakusiaren baheketa eta mintzairaren nahasmenduak.

c) Aldakaren displasia ebolutiboa.

d) Kriptorkidia.

e) Begiko anomaliak, anbliopia, estrabismoa eta errefrakzio-nahasmenduak.

f) Baheketa bereziko indikazioak dituen arrisku-populazioa: gaixotasun zeliakoa, ferropenia, hiperkolesterolemia, hipertentsio arteriala, tuberkulosia, haurren garun-paralisia.

g) Tratu txar, abusu edo zabarkeriaren arrisku-adierazleak.

C) Patologia prebalentearen arreta: akutua, kronikoa, eta arrisku-faktoreak dituen haurraren arreta.

1.– Patologia prebalente akutuak LMAn.

1.1.– Arnasbideetakoak: goiko arnas-infekzio akutua, faringitisa, otitisa, sinusitisa, amigdalitisa, laringitisa, trakeitisa, bronkitisa, bronkiolitisa, pneumonia, disnea, eztula, epistaxia.

1.2.– Infekziosoa: fokurik gabeko sukarra, meningitisa, gaixotasun exantematiko biriko eta bakterianoak, adenopatiak, mononukleosi-sindromea, tuberkulosia, parasitosisia.

1.3.– Digestiboa: ikterizia, bularreko haurraren kolikoa, gorakoak, beherakoa, heste-ohituren alterazioa, abdomeneko mina, estomatitisa, errefluxu gastroesofagikoa, gastroenteritis akutua, hepatitisa, errektorragia.

1.4.– Dermatologikoa: pixoihaiek sortutako dermatitisa, urtikaria, garatxoak, molluscuma, nebusa, inpetigoa, akneak, ziztadak, prurigoa, dermatomikosisia, pedikulosisia.

1.5.– Muskulu-eskeletikoa: herrena, ibileraren nahasmendua, osteokondrosia, artritis, artralgiak, muskuluetako minak, talalgiak, beheko gorputz-adarren errotazio- eta angelu-alterazioak, oin zapalak, bizkarrezurreko alterazioak.

1.6.– Genitourinarioa eta giltzurrunetakoa: gernu-infekzioa, maskuri-uretrako errefluxua, prosteinuria, hematuria, glomerulonefritisa. Fimosia, balanitisa. Ginekologia haur eta nerabeengan: bulbobaginitisa, dismenorrea, obulutegi polikistikoaren sindromea, hileko zikloaren nahasmenduak.

1.7.– Oftalmologikoa: malkobidearen estenosia, ambliopia, begi-zolitasuna gutxitzea, estrabismoa, konjuntibitisa, betazal-alterazioak, sortzetiko gaixoatsunak (glaukoma, katarata), begi gorria, begiko traumatismoa.

1.8.– Istripuak eta traumatismoak: intoxikazioak, erredurak, zauriak, traumatismo muskulu-eskeletikoak eta garezurreko traumatismoak.

1.9.– Kardiobaskularra: murmurioak, sinkopeak, bularreko mina, erritmo-nahasmenduak.

1.10.– Odontologikoa: txantxarrak, gingiboestomatitisa, flemoiak, traumatismoak, maloklusioak.

1.11.– Hematologikoa: anemia ferropenikoa, purpurak, tronbopenia, koagulazioaren nahasmenduak.

1.12.– Onkologikoa: tumore-prozesuak egon daitezkeela adierazten duten zeinu eta sintomak. Tumore solido ohikoenak. Leuzemiak. Linfomak.

1.13.– Kirurgia behar dezaketen prozesuak (egutegi kirurgikoa).

1.14.– Farmakoak haurdunaldian eta edoskitzaroan.

1.15.– Bihotz-biriketako bizkorketa pediatrikoa. Pediatriako larrialdiak. Gorputz arrotza arnasbidean. Urperatzeagatiko asfixia.

2.– Patologia kronikoak.

2.1.– Asma. Errinitis alergikoa. Urtikaria, angioedema, anafilaxia.

2.2.– Amigdaloadenoidektomiaren indikazioak. Loaren apnea/hipopnea buxatzailearen sindromea (LAHBS).

2.3.– Gehiegizko pisua eta obesitatea. Sindrome metabolikoa. Nutrizio-urritasunak izatea. Dieta vegetarianoak eta alternatiboak. D bitaminaren eskasia. Errakitismoa eta osteoporosia.

2.4.– Dermatitis atopikoa.

2.5.– Enuresia. Maskuriko eta uretrako errefluxua eta errefluxuak sortutako nefropatia.

2.6.– ADHN.

2.7.– Atzerapen psikomotorra. Haurren garuneko paralisia. Zefaleak. Konbultsioak sukarrarekin eta sukarrik gabe. Sindrome epileptikoak. Nahasmendu paroxistiko ez-epileptikoak.

2.8.– Garaiera txikia. Hazkundearen atzerapena. Pubertaro goiztiarra eta atzeratua. Ginekoma. Diabetes mellitusa. Hipo eta hipertiroidismoa.

2.9.– Abdomeneko min errepikaria. Beherako eta idorreria kronikoak. Gaixotasun zeliakoa. Hesteko gaixotasun inflamatorioa. Hepatopatiak eta ikterizia haurtzaroan.

- 2.10.– Elikadurarekiko intolerantzia eta alergia. IgE eta ez-IgE alergiak neurtuta.
- 2.11.– Nahasmendu erreumatologikoak. Gazteen artritis kronikoa. Schönlein-Henoch-en purpura. Kawasaki-ren gaixotasuna eta beste baskulitis batzuk. Konektibopatiak. Aldizkako sukarra eta PFAPA.
- 2.12.– Hezur- eta lokomozio-sistemaren nahasmenduak. Haur ortopedia. Aldakako displasia. Perthes-en gaixotasuna. Tortsio-nahasmenduak. Eskoliosia eta zifosia.
- 2.13.– Osasun mentalari lotutako patologiak: depresioa, espektro autistaren nahasmenduak (EAN).
- 2.14.– Beldurrak, fobiak, loaren nahasmenduak.
- 2.15.– Jokabidearen eta ikaskuntzaren alterazioak. Irakurketaren eta idazketaren nahasmenduak.
- 2.16.– Elikadura-portaeraren nahasmenduak.
- 2.17.– Sexualitatearen garapena nerabezaroan. Homosexualitatea. Sexu-identitateko arazoak.
- 2.18.– Trastorno psikosomatikoak.
- 3.– Arriksu sozialeko faktoreak, elbarritasuna eta tratu txarrak jasaten dituzten haurren arreta.
- 3.1.– Arrisku sozialean dauden haurrak: etorkinak, etnietakoak.
- 3.2.– Maneiu diagnostiko eta terapeutikoa, haurrari tratu txarra ematen zaiola susmatzean edo ikustean.
- 3.3.– Garaiaurreko haurraren jarraipena. Umetoki barneko hazkunde atzeratua duen jaioberria. Down-en sindromea eta beste minusbalotasun batzuk.
- 4.– Pediatria soziala.
- 4.1.– Pediatria sozialaren kontzeptua.
- 4.2.– Ama eta haurrak babesteko legeak eta arauak. Haurrak babesteko erakundeak.
- 4.3.– Arazo etiko eta legal interesgarriak praktika klinikoan; hurrengo eguneko pilula, adingabe heldua.
- 4.4.– Egoitza-harrerako erregimenean dauden adingabeentzako arreta sanitarioa.
- 4.5.– Inoren kargura ez dauden adingabeen gaineko ekintza-proposamena (IKEDAA).
- 4.6.– Adingabe migratzailearen arreta.
- 4.7.– Adopzio nazionala eta nazioartekoa.
- 4.8.– Haurren tratu txarrak. Tratu txarrak desgaitasuna duten adingabeengan.
- 4.9.– Dibortzioak haurrengan eta nerabeengan duen eragina.
- 4.10.– Eskola-porrota. Eskola-jazarpena.
- 4.11.– Ama mendekoaren seme-alaba. GIBa duten pazienteen arreta.
- 4.12.– Drogak kontsumitzen dituzten nerabeak eta gazteak: jokabide-nahasmendutik patologia dualera.

- 4.13.– Haurdunaldia nerabezaroan.
- 4.14.– Arriskuan dagoen haurren arreta.
- 4.15.– Gaixotasun arraroak adin pediatrikoan.
- 4.16.– Haurren desgaitasuna. Arreta goiztiarra.
- 4.17.– Gazte-indarkeria: karakterizazioa eta esku hartzeko proposamena Goranzko indarkeria edo seme-alaben eta gurasoen artekoa.
- 4.18.– Adingabeak eta komunikabideak Osasunaren sustapena. Guraso-hezkuntza.
- 5.– Bioetika eta pediatria.
- 5.1.– Oinarriak, erreferentzia-esparruak, aplikazioak.
- 5.2.– Kontzepzio aurreko, jaio aurreko eta jaioberrien gaiak.
- 5.3.– Gai soziosanitarioak eta osasun publikokoak. Kronikoki gaixorik dagoen haurra.
- 5.4.– Nerabezaroko gaiak. Adingabe heldua.
- 5.5.– Bizitzaren amaierako gaiak. Haur terminalaren eta haren senideen beharrak. Zainketa aringarriak.
- 5.6.– Ikerkuntza klinikoa haur eta nerabeengan.
- 5.7.– Erantzukizun profesionala pediatrian.
- 6.– Kiroleko medikuntzaren printzipio orokorrak lehen mailako arretako pediatrian. Bat-bateko heriotza prebenitzea kirol-jardunean.
- 7.– Farmakologiako kontzeptuak lehen mailako arretako pediatrian. Tratamenduarekiko atxiki-mendua. Preskripzio-akatsak. Antibiotiko komunekiko erresistentzia. Tratamendu kortikoidearen erabilera kronikoari lotutako arriskuak.
- 8.– Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko Legearen xedea.
- 9.– Euskadiko Lehen Mailako Arretarako Estrategia.
- 10.– Euskadiko Plan Onkologikoa.
- 11.– Euskadiko Zainketa Aringarrien Plana.
- 12.– Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari Osakidetzan aurre egiteko protokoloa.

GAI-ZERRENDA OROKORRAREN BIBLIOGRAFIA

- 1.– Martín Zurro A., Cano Pérez J. F., J Gené Badia. Atención primaria. 7. edizioa. Elsevier España, SA argitaletxea. 2014. ISBN: 9788490228678. 1. liburukia. Atención primaria. Principios, organización y métodos.
- 2.– Martín, Zurro, Cano, Pérez & Gené Badia. Atención primaria. Problemas de salud en la consulta de medicina de familia. 8. edizioa. Argitalpen-data: 2019ko ekaina.
- 3.– Prevención en la infancia y la adolescencia. PrevInfad/PAPPS gomendioak.
<http://previnfad.aepap.org/>

- 4.– Espainiako Pediatriako Elkartearen (AEP) Txertoen Aholku Batzordea.
<http://vacunasaep.org/>
- 5.– AEPren txertaketa-eskuliburua.
<http://vacunasaep.org/documentos/manual/manual-de-vacunas>
- 6.– Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko txertaketa-eskuliburua.
<https://www.euskadi.eus/informazioa/txertaketen-eskuliburura/web01-a2adik/eu/>
- 7.– Nelson: Tratado de pediatría. 20. edizioa. R. M. Kliegman. Argitaletxea. Elsevier España, S.A. ISBN: 9788491130154.
- 8.– Manual de Pediatría Social. Egileak: José Antonio Díaz Huertas, Laura Marín López eta Antonio Muñoz Hoyos. ISBN: 978-84-16021-00-0. Editatzen du: Ediciones del Genal. Malaga. 2013.
- 9.– Bioética y Pediatría. Proyectos de vida plena. Editoreak: Manuel de los Reyes López eta Marta Sánchez Jacob. Madril: Madrilgo eta Gaztela-Mantxako Pediatría Elkarte. 2010.
- 10.– AEPap algoritmoak (Espainiako Lehen Mailako Arretako Pediatría Elkarte).
<http://algoritmos.aepap.org/>
- 11.– GIDEP. Emergentsia Pediatrikoen Diziplinarteko Taldea.
<https://www.osakidetza.euskadi.eus/profesionalak/-/informazioa/emergentzien-pediatrikoen-diziplinarteko-taldea-epdt/>
- 12.– Osasun Sistema Nazionalaren praktika klinikoari buruzko gidak.
<http://portal.guiasalud.es/web/guest/guias-practica-clinica>
- 13.– Pediatría-intereseko webguneak.
 - 13.1.– Espainiako Pediatría Elkarte (AEP).
<http://www.aeped.es/>
 - 13.2.– Espainiako Lehen Mailako Arretako Pediatría Elkarte (AEPap).
<http://www.aepap.org/>
 - 13.3.– Respirar-To Breathe.
<http://www.respirar.org/>
 - 13.4.– GIPI. Pediatría informatizatuen talde independentea, LMAko pediatrentzako webgunea.
<http://www.elgipi.es/>
 - 13.5.– Lehen Mailako Arretako Pediatriako Prestakuntzako curriculum. European Confederation Of Primary Care Paediatricians. (ECPCP).
https://www.aepap.org/sites/default/files/documento/archivos-adjuntos/curriculo_europeo_traducido.pdf

13.6.– Retos de futuro en el cuidado del desarrollo infantil. Arreta Goiztiarreko Profesionalen Elkartearen Espainiako Federazioa. 1. edizioa. 2022ko otsaila.

https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/7761_d_RetosDelFuturo.pdf

14.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan 2020.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo_estrategia_seg_paciente/eu_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020_eu.pdf

15.– 147/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duena.

16.– 41/2002 Oinarrizko Legea, azaroaren 14koa, pazientearen autonomiari eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrei dagokiena.

17.– 7/2002 Legea, abenduaren 12koa, osasun arloko aurretiazko borondateena.

18.– 3/2021 Lege Organikoa, martxoaren 24koa, eutanasia arautzekoa.

19.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duena.

20.– 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, indarkeriaren aurrean haur eta nerabeei babes integrala ematekoa.

21.– Euskadiko Lehen Mailako Arretarako Estrategia.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_departamento/eu_def/adjuntos/Euskadiko-lehen-mailako-arretarako-estrategia.pdf

22.– Euskadiko Onkologia Plana.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/plan_oncologico_2018_2023/eu_def/adjuntos/euskadi-onkologia-plana-2018-2023.pdf

23.– Euskadiko Zainketa Aringarrien Plana.

https://www.euskadi.eus/plan_programa_proyecto/45-euskadiko-zainketa-aringarrien-plan-2016-2020/web01-s2osa/eu/adjuntos/cuidados_paliativos_plan_eu.pdf

24.– Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari Osakidetzan aurre egiteko protokoloa

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_servic_proto_aseso_confide/eu_def/adjuntos/ACOSO_SEX_WEB_eus.pdf

II.– GAI-ZERRENDA KOMUNA

1.– Osasun-lanbideen araudia.

2.– Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitatea.

3.– Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutua.

4.– Euskadiko Antolamendu Sanitarioa.

5.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoa.

- 6.– Osakidetzako paziente eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.
- 7.– Pazientearen autonomia eta eskubideak eta betebeharrak informazio eta dokumentazio klinikoko gaietan.
- 8.– Osasunaren arloko aurretiazko borondateak.
- 9.– Datu Pertsonalak Babesa eta Eskubide Digitalak Bermatzea.
- 10.– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.
- 11.– Marko Estrategikoa.
- 12.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak.
- 13.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan.
- 14.– Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia.
- 15.– Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plana.

GAI-ZERRENDA KOMUNAREN BIBLIOGRAFIA

- 1.– 44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa.
- 2.– 16/2003 Legea, maiatzaren 28koa, Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzkoa.
- 3.– 55/2003 Legea, abenduaren 16koa, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuarena.
- 4.– 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
- 5.– 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetzeta-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituenak.
- 6.– 147/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Euskadiko osasun-sistemako pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duena.
- 7.– 41/2002 Oinarrizko Legea, azaroaren 14koa, pazientearen autonomiari eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrei dagokiena.
- 8.– 7/2002 Legea, abenduaren 12koa, osasun-arloko aurretiazko borondateena.
- 9.– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.
- 10.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bigarren aldaketa barne.
- 11.– Marko Estrategikoa. Osasun Saila. 2021-2024.
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco_estrategico_2021_2024/eu_def/adjuntos/Marco-Estrategikoa-Osasun-Saila-2021-2024.pdf
- 12.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020.
http://www.osakidetzeta.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/osasun_plana_2013_2020.pdf

13.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan 20 20.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo_estrategia_seg_paciente/eu_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020_eu.pdf

14.– Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia (2021-2024).

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_soziosanitario_estrat/eu_def/adjuntos/estrategia_sociosanitaria_187x280_eu_web.pdf

15.– Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plana 2022-2028.

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_trbg_planes_programas/eu_def/adjuntos/Osakidetzan-Euskararen-Erabilera-Normalizatzeko-III-Plana-2022-2028.pdf